


Korres-San Roman de Campezo

Vuelta a la Muela



Localización

Este itinerario une tres pueblos escondidos de Izki (Korres, Bujanda y San Roman de Campezo) a través de antiguas sendas hoy día señalizadas como Sendero de Antoñana, Sendero de Bujanda, Camino de Lagabia y GR-1 Sendero Histórico. Nos permite unas inmejorables vistas de los montes Soila (990 m.), Muela (1.056 m.), Peña el Castillo y Peña El Santo, y nos cruza con el arroyo Izki, el desagüe natural del extenso bosque de Izki. Administrativamente Korres pertenece a Arraia-Maeztu, Bujanda a Kanpezu y San Román de Campezo a Bernedo.

Algunas joyas naturales


- **Bosque mixto de Soila:** En las inhóspitas laderas pedregosas de estos montes se crean huecos y espacios que aprovechan especies poco habituales; arce menor, arce falso plátano, arce de Montpellier, serbal de cazadores, mostajo, avellanos...
- **Quejigos de Bujanda:** Enormes ejemplares viejos en un entorno de chozas de caza y charcas de jabalí.

Lugares de interés

Korres: La otrora disputada villa conserva su disposición medieval de calles estrechas, paralelas con las casas juntas con la parroquia de San Esteban y la fuente abrevadero en su extremo Sur.

Bujanda: La parroquia de la Asunción alberga el cuerpo incorrupto de San Fausto, a donde acuden anualmente cientos de visitantes.

San Román de Campezo: Además de la parroquia de la Natividad, destacan la Ermita de San Roman, templo rupestre situado en la pared rocosa de la peña El Santo. La cueva natural se utilizaba ya desde la Edad de Bronce.



RECORRIDO

0 Km. / 0h. 0' Iniciaremos el recorrido en la villa de **Korres**, que atravesaremos por su calle principal (o por la calle de la fuente) hasta la iglesia de San Esteban. La señalización nos marca **Senda Antoñana**, cuyo tramo inicial deberemos seguir. Este camino inicialmente asfaltado, pasa a convertirse en una pista de todouno naranja poco antes de llegar al cementerio. La pista es cómoda y con poca pendiente. Pasados 800 metros dejaremos a nuestra izquierda la pista que asciende **Soila**. Un poco más adelante llegaremos a un cruce de caminos, donde, haciendo caso a la señal, abandonaremos la pista ancha, cruzaremos la barrera y nos introduciremos en una tupida senda flanqueada por boj y una gran diversidad de árboles. Esta agradable senda nos conduce a un estrecho paso entre **Soila** y **Peña El Castillo**. Una vez rebasado, se abren las vistas y tendremos la opción de acercarnos al mirador. La senda continúa, ahora en pronunciado descenso, nos obliga a cruzar otra barrera, rechazar una pista que asciende y nos sitúa en cruce de caminos.

2,40 Km. / 0h. 45' Será el momento de abandonar la Senda Antoñana, y tomar el **Camino Lagabia**, que continúa descendiendo pero en dirección contraria a la que llevábamos.

3,80 Km. / 1h. 15' Los rótulos de la Senda nos indican que hemos llegado a la **Senda Bujanda**. Haciendo caso a las marcas seguiremos por la estrecha senda hasta cruzar el puente del **arroyo Izki**, donde retomamos el camino por una pista ancha. El camino es sombrío, inicialmente, aunque se va aclarando poco a poco y apenas tiene una leve subida. Enseguida llegaremos a **Bujanda**.

5,80 Km. / 1 h. 50' Entraremos en **Bujanda** y nos dirigiremos a la iglesia, para tomar el camino de la fuente (buen lugar para descansar un poco). En este punto se nos abren dos posibilidades; la de seguir las confusas marcas del GR-1, un tanto cerrado por la vegetación, o tomar la pista que asciende a **Roble Hueco**. Tomaremos esta segunda opción, a pesar de su dureza. Desde la fuente, el camino continúa ascendiendo en un empinado zigzag, inicialmente es de hormigón, luego de todouno y ya en el depósito de agua se convierte en una trocha herbosa. Cambia el piso, pero no la pendiente, porque aún quedan 700 metros de fuerte ascensión. En el término de **Roble Hueco** la pendiente se suaviza y empiezan a aparecer ejemplares colosales de quejigo (roble chaparro). Es un lugar agradable, que rebosa tranquilidad. En breve desembocamos en una ancha pista y que seguiremos manteniendo la misma dirección. No pasará inadvertido para nosotros que es un territorio con amo: el jabalí. Aunque no son los únicos que usan este monte, las chozas palomeras y las cuerdas de los cimbeles indican que la caza de paloma es importante. Hemos retomado ya el GR-1, pero su pésimo estado nos obligará a abandonarlo a escasos 100 metros.


8,30 Km. / 2 h. 15' Próxima a una de las chozas encontraremos la carretera y por su orilla ascenderemos hasta el **Alto Zabala**, fácil de reconocer, ya que aquí desaparece el bosque, aparecen los campos de cultivo y podemos ver San Román, **La Muela** y **Peña el Santo**.

9,30 Km. / 2 h. 35' A nuestra derecha surge una parcelaria que en ligero ascenso y entre cultivos y setos nos conduce hasta este prominente pueblo.

10,80 Km. / 3 h. 00' Llegada a **San Román de Campezo** .

Korres-Durruma Kanpezu

Muela mendiko itzulia



Kokapena

Ibilbideak aintzinako zidorretatik zehar Izki hiru herri izkutu lotzen ditu (Korres, Buxanda eta Durruma Kanpezu). Gaur egun bide horiek Antoñana Zidorra, Buxanda Zidorra, Lagabia Bidea eta GR-1 Zidor Historiko izenekin markatuta daude. Soila (990 m.), Muela (1.056 m.), Peña el Castillo eta Peña El Santo mendien ikuspegi ezin hobekak eskeintzen ditu eta baso polit batetik zehar Izki ibaira hurbiltzen gaitu, Izki baso zabalaren hustubide naturala. Hiru udalerriz ezberdin zapalduko dugu; Arraia-Maeztu (Korres), Kanpezu (Buxanda) eta Bernedo (Durruma Kanpezu).

Zenbait altxor natural


- **Soilako baso nahasia:** Mendi hauetako magal harritsu, malkartsu eta latzetan ugariak ez diren espezie batzuentzako tokiak irekitzen dira; azkarria, astigarra, Montpellier astigarra, otsolizarra, hostazuria, urrutzak,
- **Buxandako erkametzak:** Eremu honetan erkametz eskergak daude (eta haien ezkurrez elikatzen diren basurde ugari era bai).

Toki interesgarriak

Korres: Berau kontrolatzeko Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko liskarrak ahaztuta daude, baina Erdi Aroan izan zuen egitura mantentzen du; kale estuak, etxe itsatsiak,... Hego muturrean San Esteban parrokia eta iturria.

Buxanda: Jasokunde parrokiaren San Faustoren hilotz ustelgabea gordetzen da. Bera ikustera ehundaka bisitari datoz urtero.

Durruma Kanpezu: Jaiokunde parrokiaren gain Durruma basiliza aipagarria da. Haitzulo baten barruko tenplu hau El Santo haitzaren hormetan dago. Brontze Arotik erabiltzen zen kobazulo hau.



IBILBIDEA

0 Km. / 0 or. 0' Ibilbidea **Korres** hiribilduan hasiko da. Kale nagusitik edo iturriko kaletik joanda San Esteban elizara iritsiko gara. Han, seinaleak hartu behar dugun **Antoñana Bidearen** norabidea adierazten du. Hasiera batean asfaltatuta dago, baina berehala, hilerrira iritsi baino lehenago todouno laranja bihurtzen da. Pista aldapa leunekoa eta eroso da. 800 metro iragandakoan gure ezkerretara Soila mendira doan pista utziko dugu. Pixka bat aurrerago bidegurutze batera ailegatuko gara, non, seinaleari kasu eginez, pista zabala utzi, hesia gurutzatu eta ezpelak eta zuhaixka anitzek mugatzen duten zidor ilunean barneratuko garen. Xenda atsegin honek **Soila** eta **Peña El Castilloren** arteko pasabidera eramango gaitu. Pasatutakoan gure aurrean oso paisaia ederra zabalduko zaigu eta begiratokira hurbiltzea izango dugu. Zidorrak behera egiten du eta beste hesi bat gurutzatzera behartuko gaitu. Gora doan pista errefusatuko dugu eta bidegurutze batera agertuko gara.

2,40 Km. / 0 or. 45' **Antoñana Zidorra** uzteko unea izango da. **Lagabia bidea** hartuko dugu, jarraitutako norabidearen kontra baina behera jaisten jarraitzen duena.

3,80 Km. / 1 or. 15' Zidorraren seinaleek **Buxanda zidorrera** heldu garelara baieztatzen digute. Markei kasu eginez behobide estu batetik segitu beharko dugu Izki ibaiko zubia gurutzatu arteraino. Bidea gora doan pista zabal eta umel bihurtzen da. Pixkanaka lautu eta argituko da. Berehala Buxandara iritsiko gara.

5,80 Km. / 1 or. 50' **Buxandara** sartuko gara eta elizarantz hartuko dugu. Handik gora iturriaren atsedean lekua topatuko dugu. Toki honetatik bi aukera izango dugu; landaretzak erdi janda duen GR-1en marka ia ezabatuak jarraitzea edo **Roble Hueco** tokira igotzen den pista hartzea. Bere gogortasuna gorabehera bigarren aukera hartuko dugu. Iturritik bideak sigi saga gora darrai. Hasiera batean porlanezkoa da, gero todounozkoa eta ur biltegiara heldutakoan belarrezko bihurtzen da. Zorua aldatu da baina aldapa ez, oraindik 700 metroko igoera gogorra falta zaigulako. **Roble Hueco** tokian aldapa leundu eta erkametz eskerga ugari agertzen dira (bertakoek *roble chaparro* esaten diete). Lasaitasuna darion oso toki atsegina da. Berehala pista zabalarekin bat egingo dugu eta norabide berdinarekin jarraituko dugu. Basoak jaun eta jabea dauka, gauean errege bihurtzen den izakia: basurdea!. Baina ez da hori basoaz baliatzen den izaki bakarra; ehiza etxolek eta "cimbel" delakoen sokek gizakia eta pagausoaren arteko demaz hitz egiten baitigute. GR-1 hartu dugu berriro baina bere egoera kaskarra dela eta 100 metro aurrerago utziko dugu.

8,30 Km. / 2 or. 15' Etxola hauetako batetik gertu errepidea ikusiko dugu eta bere ertzetik **Alto Zabala** tokiraino igoko gara. Alto Zabala erraz ezagutuko dugu: basoa desagertu, soroak agertu eta **Durruma** herria, **Muela** eta **Peña el Santo** mendiak ikusten ahalbidetzen digun panorama irekitzen zaigulako.

9,30 Km. / 2 or. 35' Gure eskubitara agertzen den partzelaria hartuko dugu eta leunki gora, soro eta zuhaixka hesien artean, herri garai honetaraino heltzeko gutxi faltako da.

10,80 Km. / 3 or. 00' **Durruma Kanpezura** iritsiko gara.